



**tolosaldeko
ataria**



YOLOSALDEKO **hitza**



2013-11-29 • 34 zenb.



Marian Galarraga

Euskal zinearen ahotsa

Etxegabetze arriskuan dagoen ibartarrari babesak agertu dio udalak 4
'Tantaz tanta itsasoa gara!' lelopean manifestazioa, igandean 6
P.J. Aranbururen begirada I.Karlistadari 16-18 • Auzolan Festa 22-25



ataria
Internet

Jarraitu albisteak Twitter bidez
@tolosaldeataria 

Tolosaldeko Ataria
orrialdeari eman "atsegin dut" 



Sartu gure webgunean
ataria.info

Gozotegia

Okindegia

ECEIZA

P. Gorosabel, 34 - Tel. 943 655 161 - San Francisco, 8 - Tel. 943 651 916



aldama_tapia
aholkularitza

Foruen Etorbidea, 7
20400_TOLOSA Gipuzkoa
Tel. 943 650 375
Faxa, 943 655 206
gtolosa@aldamatapia.com
www.aldamatapia.com



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEGURTEA, ASKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIA
Hezkuntza Politikaren Zeharrazteko



ataria
prentsa

Gure betaurreko
guztiak
azken
bildumakoak dira

ZURE BIGARREN

VARILUX[®]
LEIAR PROGRESIBOAK

OPARI*

* kontsulta izazu zure zentroan kanpainaren eszagarririk.

ARRASATE • BERGARA • BEASAIN • DONOSTIA • EIBAR • ERMENTERIA • IRUN • ORDIZIA

San Frantzisko, 23 • Tel. 943 69 84 70 • TOLOSA

MULTIÓPTICAS
lehen zerbiztu optikoetan

Ama, zergatik?



EIDER GOENAGA LIZASO
BERRIAKO KAZETARIA

Ama izaten zarenerako hamaika asmo on izaten dituzu buruan, aurretik askotan irudikatu duzu nola-ko ama izan nahiko zenukeen, nola jokatu nahiko zenukeen zure umeeekin, nolakoa ez duzun izan nahi eta zer saihestu beharko zenukeen. Gero ama izaten zara, eta asmo guzti horiek praktikan jartzeko ahalegina egiten duzu, esfortzu handiarekin aurretik pentsatutakoak betetzen saiatzen zara... Baina, zein zaila den zure buruan zenituen horiek guztiak betetzea.

Nire kausan, hauxe zen asmo on horietako bat: haurrak galdera bat egiten didanean, egia erantzungo diot, umeei azaldu behar zaizkien moduan azalduko dizkiot gauzak, baina gezurrik esan gabe, eta egiten didan galderari ihes egin gabe. Kar, kar, kar... Azken al-dian, gero eta gehiago gertatzen zait umeari zer erantzun eman ez jakitea; eta jokatu nahi ez nuen bezala jokatu izan dut behin baino gehiagotan.

Lehegan batean, Tolosatik Iru-rara autoan gindoazen umea eta biok, eta nire gizona beste auto batean zihoan, gure aurretik. Halako batean, Anoetara iritsi baino lehenago, han non ikusten dudan Ertzaintzak gelditu egin duela. Ezi-

kusiarena egiten saiatu nintzen, baina umeak berehala ikusi zuen: «Ama, zer egiten du aitatzok hor?». «Poliziak gelditu du», erantzun nion. «Eta zer egin du, ba?». «Ezer ez, maitia». Umeak, kezkatuta: «Baina, kartzelara eramango dute?». Ai ama, ze burutazio! «Kartzelara? Ez noski. Aitatzok txintxoia da, ez dute kartzelara eramango». «Orduan, poliziak dira gaiztoak?». To eta no, hau moztu egin behar dut. «Bai, beno, batzuk bai, baina, tira... Maitia, jarriko ditugu Pirritx eta Porrotxen abestiak?».

Baina, kakanarru txikiak baino ez diruditen arren, memoria ona dute umeeak. Etxean pozik geunden Pello Odriozola askatu behar zutela-eta, Pello gora eta Pello behera ari ginen, eta umea ere ohar-tu zen, noski. «Zein da Pello, ama?». «Aitonaren lagun bat da. Kartzelan dago eta askatu egingo dute. Aitona oso pozik dago». «Baina, kartzelan baldin badago, gaiztoa izango da, ezta?». «Ez, ez da gaiztoa, txintxoia da». «Orduan, zergatik sartu dute kartzelan, txintxoia baldin bada?». Ene, eta zer esplikatzeko diot nik orain? Non gelditzen dira nire asmo on guztiak? «Benoa, maitia, kontua da ez zutela kartzelara sartu behar, eta inportanteena da aitona oso pozik dagoela eta aitona oso pozik dagoela». «Zergatik dago pozik?». Ene, «zergatik» soka luzea ekar dezake honek, eta ni momentu honetan — gaueko 21:30ak dira, umea oheratzeko ordua da, eta lan egun gogorra izan dut— ez nago horrelako kontuetarako. Aurrerago ere izango du Pello kartzelan zergatik sartu zuten jakiteko aukera. «Maitia, goazen ohera, zuk nahi duzun ipuina kontatuko dizut-eta».



tolosaldeko
ataria



Argitaratzailea:

Tolosaldeko Komunikazio Taldea, S.L

Lege Gordailua: SS-1323-2013

Zuzendaria: Ainhoa Oartzabal

Telefona: 943 655695

Faxa: 943 650018

Webgunea: www.ataria.info

E.P: ataria@ataria.info

Irratia: FM 107.6

Papereko editorea: Eneritz Maiz.

Interneteko editorea: Imanol Garcia Landa.

Irratiko editorea: Jon Miranda.

Tolosaldeko

Komunikazio Taldea, S.L-ko kideak:



BERTAKO
HEDABIDEAK

berria



Tolosaldeko gizarte eragileak

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:

- **Udalak:** Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil



Gipuzkoako Foru Aldundia



HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURAREN SAHIA
Hizuntza P44karako Sarbunamutza



Herenegun egin zuten ohiko bilkuran, etxegabetze arriskuan dagoen ibartarrak bere egoeraren berri eman zuen. I.T.

Etxegabetze arriskuan dagoen ibartarrari **babesa**

Ibarrako Udalak Nova Caixa Galicia banketxeari etxea ordainean ematea onartzea exijitu dio

IÑIGO TERRADILLOS IBARRA

Etxegabetze arriskuan dagoen herritar baten kasua aztertu zuten herenegungo Ibarrako ohiko osoko bilkuran. Ibartar gazte bat da egoera horretan aurkitzen dena, eta hipoteka duen banketxeari etxea ordainean ematea eskatzen dio duen zorra kitatuz. Ibarrako Udalak gehienegoz onartu duen mozioan, ibartarrari elkartasuna azaltzeaz gain, banketxeek herritarrak etxerik gabe uzten jarraitzen dutela salatu du, eta kaltetuak eskatzen duena ematea, hau da, etxea ordainean ematea onartzea exijitu dio Nova Caixa Galicia banketxeari.

Ibartarrak berak azaldu zuen herenegungo bilkuran bere egoera. Hala, etxegabetuko dutela esanez banketxearen gutuna iritsi zaiola kontatu zuen, oraindik epearen berri ez duen arren. Senarrarekin ba-

tera erosi zuen etxebizitza, banandu egin ziren, eta senarra kaudimengabe deklaratu ostean, zor guztia berarena izatera pasa da: «Nik ezin dut nire gain hartu, bost urteko semea daukat, eta gainera, une honetan, langabezian nago», esan zuen. Horregatik, eskatu du etxebizitza ordainean eman zorra kitatzea.

Nova Caixa Galiciarekin —lehen-go Caixa Galicia— du hipoteka. Ibartar kaltetuaren abokatuak dituen aukeren berri eman zuten: «Berriro epaitegira eraman daiteke auzia, handik konstituzionalera, eta bestela Estrasburgora eramatea izango litzateke bidea, baina oso zaila da hori, eta gainera, lege berriaren ondorioz, epaiketa gastuen zati bat ordaindu beharko luke. Babesgabetasun egoeran dagoela akreditatzea litzateke beste aukera, edo bestela, zorraren luzamendua eskatzea, baina, handituz joango litzateke zorra, beraz, ez da biderik egokiena». Horregatik, etxea ordainean ematea, eta duen zorra kitatzea da ikusten duten aukerarik egokiena.

Ibarrako Udalak onartu duen mozioaren arabera, gogora ekartzen du etxebizitza eskubidea eskubide soziala dela. Bestetik, salatu nahi du «eskandaluzkoa dela erreskateetik etekina ateratzen ari diren edo aterako dituzten bankuek herritarrak etxerik gabe uzten jarraitzen dutela». Halaber, udalak etxegabetzea nozitu duten herritarrei eta egoera horren arriskuan daudenei informazioa eta laguntza emateko baliabideak jarriko ditu, eta dago-kion finantza erakundearekin harremanetan jarriko da etxegabetzea ekiditeko helburuarekin. Horrez gain, udalak etxegabetzea salatu eta haien aurka lanean ari diren eragileekin elkarlanean aritzeko prest agertzen da.

Stop Kaleratzeak bilera

Bestalde, Tolosako Stop Kaleratzeak plataformak bilera egingo du gaur, 19:00etan, Tolosako Abastosen duten egoitzan. Etxegabetzeen inguruan eta hipoteken indizeei buruz ariko dira plataformako kideak, eta herritar oro gonbidatu dute parte hartzera.

Irudia Tolosa



Negoiazio kolektiboaren defentsan

Eskualdeko enpresetatik igaroz, «enplegu eta negoziazio kolektiboaren defentsan» auto karabana egin zuten atzo LAB sindikatuak deituta. Mobilizazio Egunaren ba-

rruan kokaturiko ekimenek, arratsaldean izan zuten jarraipena Tolosan egin zuten manifestazioarekin. Bihar, berriz, Donostian egingo dute manifestazioa. **I.G.L.**

Mendiluze eta Irazu Bertsolari Txapelketako azken finalaurrekoan

Bihar izango dira Maulen, Laburu, Uria, Colina eta Agirrerekin batera; Mendiluzek finalerako aukera du

I. TERRADILLOS

Azken txanpan sartua dago Bertsolari Txapelketa Nagusia. Bihar azken finalaurrekoa jokatu da Maule-Lexarren eta saio horren ostean jakingo da zeintzuk izango diren abenduaren 15eko finalean kantatuko duten bertsolariak. Sei bertsolari ariko dira nor baino nor, eta horietatik bi eskualdekoak dira, Aitor Mendiluze irurarra eta Jexux Mari Irazu larrauldarra. Saioa 17:30ean hasiko da, Orona ezker paretan.

Mendiluze eta Irazurekin batera, Agin Laburu, Jone Uria, Sustrai Colina eta Unai Agirre ariko dira bertso-

Azken finalaurrekoa izanik, Maule-Lexarreko saioa amaituta finalaurrekoetako puntuaziorik onenak dituzten zazpi bertsolariek abenduaren 15ean kantatuko dute, Maialen Lujanbiorekin batera, BEC-en. Puntuazioaren arabera, Elortzak, Arzallusek, Gaztelumendik eta Iturriagak finalean beharko lukete. Mendiluzek eta Colinak ere ia ziur dute bertarako txartela.

Biharko saiorako sarrerak www.bertsosarrerak.eu webgunean, Maule-Lexarren Xiberoko Botza irratiairen egoitzan eta Baionan Elkar megadendan daude salgai. Ateak 16:00etan zabalduko dituzte.

Umamaren Gabonetako CDa

TOLOSA. Juantxo Zeberioaren Umama proiektuak lan berria aurkeztu du. *Eguberri Umama Basque Christmas Songs* izena du, eta vimeo.com/maideroleaga/eguberriumama helbidean ikus daitezke aurkezpen bideoa. Abenduaren 13an aurkeztuko dute Tolosako Leidorren.

‘Errimak oinetan’ ikuskizuna, gaur

ANOETA. *Errimak Oinetan* bertso-dantza ikuskizuna izango da gaur Auditoriumean, 22:00etan. Bada, bertarako sarrerak agortuta daudela jakinarazi dute.

‘Libre!’ dokumentala, gaur, kultur etxean

TOLOSA. *Libre! Epaiketa politikorik ez!* dokumentala izango da gaur ikusgai Tolosako kultur etxean. Emaldia 20:10ean hasiko da.

Igandean, manifestazioa presoen eskubideen alde

Arratsaldeko 19:30ean abiatuko da Tolosako Trianguloa plazatik

MIKEL IRAOLA TOLOSA

Tantaz tanta itsasoa gara! Ielopen manifestazio nazionala burutuko da datorren urtarrilaren 11n presoen eskubideen alde. Milaka tantaz osatutako elkartasunezko itsaso zabala sortu aurretik, ordea, ibaiadarrak eratuko dituzte Euskal Herriko txoko askotan. Tolosan, esaterako, igande honetan hasiko dira bide horretan, eta manifestazioa egingo da Triangulotik 19:30ean abiatuta.

«Ezinezkoa da erreka baten ibilbidea geldiaraztea, beti topatuko baititu itsasoratzeako zirrikituak. Horixe erakutsi du Herrira-ren aurkako



Eskualdeko hainbat eragile eta norbanakok eman diote atxikimendua deialdiari. m.i.

operazioak» aldarrikatu dute manifestazioaren antolatzaileek. «Gatazkaren konponbidean eta guztientzako eskubideak bermatuko dituen bakearen bila» jardun direla adierazi dute, eta «konponbidea nahi bada, gatazkak sortutako ondorioak haintzakotzat hartzea beharrezkoa» dela.

Adierazpen horrekin bat egin

dute eskualdeko hainbat eragile eta norbanakok: eskualdeko udal ordezkariak, Kike Amonarriz, Lizardi, Tolosako Bertso eskola, LAB, ELA, Sortu, Bilgune Feminista, Ernai, IA, EHNE, Otsabiko Gazteak, TOPA, Emeterio Zaldibia eta Glaukoma musika taldeak, besteak beste. Lanak «etenik ez duela» esanaz amaitu dute.

40 gazte auzipetuak bigarren saioa izan dute Madrilén

Abenduaren 9an, 10ean eta 11n, eta urtarrilaren 8an, 9an, 16an eta 17an itzuli beharko dute berriro Madrilera

M. IRAOLA

SEGIko kide izatea egotzita auzipetuta dauden 40 gazteen aurkako epaiketen bigarren txanda izan da egunotan Madrilén.

Astelehenean eta asteartean poliziak eta guardia zibilak aritu ziren deklaritzen. Egun horietan auzipetuak ez ziren bertan izan, uko egin baitziotetan eta Manuela Fernandez de Prado epaileak horretarako baimena eman baitzien. Ondoren auzipetuen lekukoek hartu zuten txanda epaileen aurrean. Hauek SEGIren kontrola

ukatu zuten Luis Barroso fiskalak egindako galderei erantzunez.

Abenduaren 9an, 10ean eta 11n itzuli beharko dute Auzitegi Nazionalera. Data hori zehaztua bazuten ere, jakinarazi diete urtarrilean ere bertaratu beharko direla, 8an, 9an, 16an eta 17an, hain zuzen ere. Saio horiekin epaiketa bukatutzat jotzea espero dute auzipetuek, eta erabakiaren zain geratu beharko dute.

Bien bitartean, egoeraren berri emateko nazioarteko birarekin jarraitzen dute. Pasa den astean Erroman eta Andaluzian izan ziren.

Azken ostirala

GAUR, URRIAK 25

Aduna. 20:00etan.

Alegia. 19:30ean.

Altzo. 18:30ean.

Amezketeta. 19:30ean.

Anoeta. 19:30ean.

Asteasu. 19:00etan.

Berrobi. 19:30ean.

Berastegi. 19:30ean.

Bidania-Goiatz. 19:00etan.

Ibarra. 19:30ean

herriaren sarreran.

Ikaztegieta. 20:30ean.

Irura. 19:30ean.

Gaztelu. 19:30ean.

Txarama. 20:15ean.

Lizartza. 20:00ean.

Tolosa. 19:30ean.

Amasa- Villabona. 20:00ean.

Zizurkil. 20:00ean.

Kultur astearen gaineko bilera

AMEZKETA. Amezketako udalak, kultur astea pasa berri den honetan, kultur astearen gaineko balorazio bilera egingo du. Hitzordua abenduaren 3an, asteartean, jarri dute, eta 20:30ean erabilera anitzeko gelan elkartzeko dira. Herritar guztiei parte hartzeko deia egin diete.

Dantza ikastaroaren entsegua, 16:30ean

ASTEASU. Dantza ikastaroa jarri dute martxan Asteasun, eta gaur, hilak 29, 16:30ean egingo dute entsegua. Dantzan ikasi nahi duten herritar guztiei luzatu nahi diete gonbidapena.

Txuleta Festako partidetak sarrerak

TOLOSA. Abenduaren 6tik 8ra, Tolosan, Txuleta Festa izango da, eta horren barruan, abenduaren 6an, pilota jaialdi berezia izango da Beotibarren. Hiru norgehiagoka izango dira: Mikel Goñi eta Otxandorenak eskualdeko Artola eta Tolosaren aurka jokatu dute. Norgehiagoka hau eta besteak ikusi ahal izateko sarrerak aurrez erosi ahal izango dira, 8 euroren truke, 661 201 492 telefono zenbakira deituz. Egunean bertan, berriz, 10 euroko prezioa izango dute Beotibar pilotalekuan.

‘Euskararen sexismo ikusezina’, hitzaldia

ANOETA. Irene Arrarats, Berria egunkariko euskara arduradunak *Euskararen sexismo ikusezina* hitzaldia emango du. Abenduaren 3an, asteartea, Anoetako udaletxeko pleno aretoan izango da, 19:00etatik aurrera. Genero gramatikalik gabeko hizkuntza sexistak izan al daitezke? galderari eta beste batzuei erantzuna emango die.

Eskualdeko Bertso eskolek ikasturte berriari ekingo diote

Bertsozaleak astero-astero bilduko dira Tolosan, Zizurkilen, Amezketan, Altzon eta Andoainen, eta ateak irekita daude

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko bertso eskolak aurten go ikasturtearekin hastear dira. Amasa-Villabona eta Tolosako kanporaketetan lanean aritu ostean, astero-astero biltzen hasiko dira Tolosan, Zizurkilen, Amezketan, Altzon eta Andoainen bertsoetan gozatu eta ikasteko.

laz sortu zen Harituz Tolosaldeko Bertsozaleen Elkargunea, eta mota guztietako bertsozaleak biltzen dira bertan: bertso eskoletan kantatzen dutenak, saioetara joaten direnak, ikerkuntzan lagundu nahi dutenak...


Aurreko urtean bezalaxe, aurten ere zenbait saio antolatuko ditu udaberriaren zehar, beste hainbat ekitalditan parte hartzearekin bate-

ra. Bertso eskola eta bertso saioez gain, ikerketa talde txiki bat ere abiarazi dute, Tolosaldeko bertsolari eta bertsozaleak ezagutzeko asmoz.

Norbaitek horren inguruko informazio gehiago jaso nahiko balu, edota zerbaitetan parte hartu nahiko balu, harituz.bzt@gmail.com helbidera idatzi edo 635 009 279 telefono zenbakira deitzea besterik ez du. Horrez gain, aurten txapelketa urtea dela aprobetxatuz, eta horrek sortzen duen jakinmina ase nahian, herrian bertsolaritzarekin zerikusia duten ikastaroak antolatzeko aukera izango da, aipatutako helbidera idatziz edo telefono zenbakira deituz.

• ataria@ataria.info •

Irudia Amasa-Villabona



Olaia Ugarteren argazkia, onena

Olaia Ugarteren *Haizearen Jainkosa* argazkiak irabazi du Aizkardi Mendi Elkarteak 30. Mendi Astea-

rako antolatutako argazki rallyaren lehen saria. Mikel Zubeldiak, berriz, publikoaren saria irabazi du.

Azpiegitura proiektuak, Albizturko erronka hurbila

Hirigintza plana, herri konpostagailua eta Zubiaurre etxea daude helburuen artean

ASIER IMAZ ALBIZTUR

Albizturren hainbat proiektu ditu begiz jota Gregorio Iraola alkateak. 2013. urtean nahi baino denbora gutxiago eskaini dio udalari, ogibideak ez baitio atsedetik eman. Hala eta guztiz ere, etorkizuneko Albiztur eraikitzeko urratsek ez dute etenik izan, eta Iraolak zehazten duenez, hori parte hartzearen bide-tik egin dute.

Hiri Antolamendurako Plan Orokorra legealdia amaitu baino lehen onartu nahi du udalak. Une honetan, teknikarien esku aurkitzen da, «herriak egindako proposamenari forma emateko». Ondoren, udal batzarrak onartu beharko du bilkuran. Albizturko hirigintza planean herriaren etorkizuna dago jokoan, adibidez, eremu batean etxebizitzak egin daitezkeen edo ez, zein mota-takoak eta abar zehazturik geldituko dira bertan. Horra iritsi bitarteko bidea luzea eta korapilotsua izan da. Gregorio Iraolak honela azaltzen du bilakaera: «Gu udalean sartu ginenean, legealdi honetan, plan orokorra lehen fasean zegoen, behin betiko onarpenaren zain. Gu sartutakoan gelditu egin genuen, eta dena berrikusi». Albizturko alkatearen esanetan, aurreko udalak planteatzen zuten Hiri Antolamendurako Plan Orokorra herriko «sektore nahiko batek» ez zuten gustoko. Horregatik gelditu zutela dio Iraolak: «Zeretik hasi bezala egin ginen. Parte hartze zuzeneko prozesu bat jarri genuen martxan. Alde batetik,



Albizturko bidean dagoen Zubiaurre etxea. IMANOL GARCIA LANDA

herri batzarrak egin genituen; bestetik, eremuz eremukoak, eta azkenik, plangintzak eragina izango zuten lur sail jabeekin elkartu gara». Plangintza berria, adostasunean, bilera horietatik sortu dela dio Gregorio Iraolak.

Lehen urratsa martxan duen hirigintza proiektua Zubiaurre etxearen ingurukoa da. Albizturko herri-gunera iristeko errepidean, estu guene bat dago Elane tabernaren inguruan. Hain zuzen ere, Zubiaurre etxearen ertz batek errepidea estutu egiten du. Iraolak herriaren «aldarrikapen historikoa» dela dio: «Gune arrikutsua da. Betidanik ezagutu duguna. Etxe hori erosi eta botatzeko nahia beti egon da hor, eta legealdi honetan hori lortu dugu». Udalak etxea erosi du, eta «herriarentzat baldintza mesedegarrietan, gainera», dio Iraolak. 2014an gauzatu nahi duten proiektuan kokatzen du Iraolak Zubiaurre etxea. Albizturrera doan bidea egokitu nahi dute urte horretan: bidea zabaldu, abiadura jaisteko sistemak jarri, zebrabideak, espaloiak...

Azpiegituren atala ez da amaitzen hor Albizturren. Gregorio Iraolak, badu beste proiektu bat bu-

ruan, nahiz eta oraindik hastapen-tan egon: «Une honetan tratuan ari gara, lur sail baten inguruan. Lortzen baldin badugu, bertan herri konposta gunea jarri nahi dugu. Horrez gain, herri langilearentzat borda moduko bat egokituko genuke, orain duen lokala, pilotaleku azpikoa, egoera nahiko txarrean baitago». Tratu ahal izateko, lur al-daketa jarri du udalak mahai gainean. Herriarenak diren hiru eremu konposta gunea joango litzatekeen eremuarengatik. Baldintza hauek herri batzarretik pasatu zirela dio Iraolak, eta bertan onartu ondoren hasi zirela tratuan. Funtzionamendu modu horri garrantzi handia ematen dio Albizturko alkateak, eta udalaren kriterioa argia dela gaineratzen du Gregorio Iraolak: «Udala herriarena da, eta ez herria udalarena. Gu ez gara inoiz inor baino gehiago, eta inoiz inori ez diogu ezer inposatuko. Kudeatzaile bezala funtzionatzen dugu, ez botere bezala». Legealdi honetan horretan saiatu direla dio alkateak, «herri batzar filosofia bat jartzen, jendea erabakietan inplikatur, edo behintzat, jakinaren gainean egon dadila. Horrela, parte izan dadin».

Kirol taula

LABRIT, IRUÑEA

PILOTA

Azaroak 30, bihar

17:30. Ekaitz Saralegi amezketarrek Lau t'erdiko Pilota Txapelketaren lehen finalerdia jokatu du, Aimar Olaizolaren aurka. Partida jaialdiko bigarrena izango da.

BEOTIBAR, TOLOSA

PILOTA

Azaroak 29, gaur

19:45. Aurrera Saiazeko pilotarien lau partida, eskuz eta infantilen mailan.

Azaroak 30, bihar

10:00. Beotibar taldeko pilotarien lau partida, zesta puntan.

UZTURPE, TOLOSA

ARETO FUTBOLA

Azaroak 29, gaur

20:30. Bikutz eta Orixe Samaniegoren arteko lehia.

Azaroak 30, bihar

16:00. Lurre taberna eta Arrikitaun taldeen arteko partida.

ESKOLAPIOAK, TOLOSA

ARETO FUTBOLA

Azaroak 29, gaur

21:00. Hiru. Plomix eta Zut tabernaren aurkako lehia.

Azaroak 30, bihar

16:00. The Nest taberna eta Azpeitikoren aurkako partida.

USABAL, TOLOSA

SASKIBALOA

Azaroak 30, bihar

09:00-18:00. Take-ko saskibalo taldeen zortzi partida jokatu dira. Horietan azkena 18:00etan hasiko da, hain zuzen ere, nagusien mailakoa Valle Eguesen aurka.

ESKUBALOA

Azaroak 29, gaur

19:30. Tolosa eta Aloña Mendiren arteko partida, juniorretan.

Azaroak 30, bihar

16:00. Tolosa eta Ereintzaren arteko partida, kadeteetan.

FUTBOLA

Azaroak 30, bihar

09:30-17:30. Tolosako talde desberdinen partidak jokatu dira. Azkena, 17:30ean hasiko da.

Abenduak 1, etzi

11:30. Tolosa eta Idiazabalen arteko partida.

INTXAUR, ZIZURKIL

PILOTA

Azaroak 29, gaur

18:30. Ziotzako pilotarien zazpi partida jokatu dira, Gipuzkoako Txapelketaren barruan.

Azaroak 30, bihar

15:30. San Millan eta Hirukideren arteko partida.

16:30. Gomazko paleta nesken jubenilen partida, Suberri eta Ziotzako pilotarien artean.

Abenduak 1, etzi

09:00. Zizurkilgo III. Eskuz Binako Txapelketaren partidak. Finalurrekoetan hiru partida jokatu dira. Alebinetan, Intxurreko Artola-Zubeldia Ziotzako Urruzola-Gorosdiren aurka ariko dira. Infantiletan, Errekako Telletxea-Mata Ziotzako Zabala-Ugartemendiaren aurka lehiatuko dira, eta azkenik, kadeteetan, Lapkeko Zubizarreta-Alberdi Intxurreko Irazustabarrena-Aizpitarteren aurka.

11:30. Zizurkilgo III. Eskuz Binako Txapelketaren partidak, gazteen mailako finalak. Eskuz banaka, Aurrera Saiazeko Santxezek Urretxuko Ibañezen aurka jokatu du. Eskuz binaka, Intzako Artea-Arangurenek Ziotzako Labaka-Erasunen aurka jokatu du.

Asteburuan, Zizurkil izango da eskualdeko pilota hiriburu

Ekaitz Saralegik Lau t'erdiko Pilota Txapelketaren finalerdia jokatu du Iruñeko Labrit pilotalekuan, bihar

ASIER IMAZ

Ziotza Pilota Elkarteko arduradunek eta pilotariak asteburu oparora izango dute. Alde batetik, partida ugari jokatu dituztelako, eta bestetik, horiek antolatzea tokatu zaielako. Izan ere, ohiko partidez gain, igandean Zizurkilgo III. Txapelketako lehen finalak jokatu dira, 11:30ean hasita. Gazteen mailako finalak izango dira, eta eskuz banaka zein binaka ariko dira. Aipatu, lehia hauetan, etxeko bikote bat egongo dela: Labaka-Erasun.

Finalak jokatu aurretik beste hiru partida ikusteko aukera egongo da Intxaur pilotalekuan, eta hauek, txapelketa bereko finalerdietako lehiak izango dira. Alebinak, infantilak eta kadeteak irtengo dira kantxara. Tartean, eskualdeko pilotari ugari, Ziotzaz gain, Intxurrek ere bere ordezkaritza izango baitu finalerdi horietan.

Azkenik, Ekaitz Saralegi ezin aipatu gabe utzi. Lau t'erdiko Pilota Txapelketaren finalerdietan dago amezketarra, eta bihar, partida handia jokatu du Goizuetako Aimar Olaizola txapeldunaren aurka. Lehia bertatik bertara ikusi nahi duenak Iruñera joan beharko du. Aukera hori ez duenak, Nitro telebista katearen bidez jarraitu dezake partida, 18:00etatik aurrera. Labriteko pilota jaialdia, ordea, 17:30ean hasiko da.



Marian Galarraga

«Tolosa punta-puntakoa da
zinema zaletasuna sortzeko
eta filmak euskaraz ikusteko»



IZARNE OLANO ALTZO

Marian Galarragak «Tarzan Eskasa» izeneko pelikula estreinatu berri du, hilaren 22an, Donostiako Antiguu Berri zine aretoan. Marian Donostian bizi den altzotarra da eta betidanik egin du euskararen aldeko borroka; gauri batean irakasle bezala hasi ba-

zen ere, bikoizle lanetan jardun du gehienbat. Duela hogeit hamar urte Tinko Elkartearen sortu zuen filmak euskarara itzultzeko helburuarekin eta orain, bertako lehendakaria da.

Euskara zinema aretoetan sartu eta euskararen normalizazioa bultzatzeko sortu zen Tinko. Lortu al du helburua?

Dena ez. Duela hogeit hamar urte filmak areto komertzialetan estreinatzen hasi ginenean, nire helburua ordutik hamar bat urtera, Euskal Herrian film guzti-guztiak euskaraz ikusteko aukera izatea zen. Urte mordo pasatu dira eta hori ez da bete eta ez da inoiz beteko. Dagoeneko etsi dut eta ia ezinezko ikusten dut, baina gutxienez, euskararen presentzia minimo bat lortu dugu zine aretoetan. Horregatik, ametsa guztiz bete ez den arren, nire ilusioetako bat bete da eta pozik nago, karteldegia zati bat euskaraz ikusi daitekeelako.

Euskarara bikoiztutako lehen filma «Alargunen Gailurra» izan zen.

Bai, mugarrria da film hori, areto komertzialetan euskaraz estreinatu zen lehenengoa izan baitzen. Tinkoren lehenengo urtetan, eskoletako programetan bakarrik jartzen genituen filmak, areto komertzialetan ezinezkoa zelako. Pelikula horrek, ordea, salto hori ematea lortu genuen.

Ordutik nolako ibilbidea izan du Tinkok?

Latza. Hasiera batean inork ez zuen sinesten proiektu honetan, nire amets bat zela eta ezinezkoa zela pentsatzen zuten. Horregatik, nire poltsikotik dirua jarrita posible zela erakutsi behar izan nuen. Oso gogorra izan zen hasiera hura, baina, egia esan, arrazoi pittin bat bazuten, beraiek ere saiatu zirelako eta ikusi zutelako areto komertzialetan multinazionalak oztupoak jartzen zizkietela euskarazko film baten aurrean. Hala ere, nik pausua eman nuenean eta ikusi zutenean nire nahia lortu nuela, posible zela ikusi zuten eta orduan hasi ginen dirulaguntzak jasotzen.

Euskara eta zinema uztartuz ia hogeit hamar urte daramatzazu. Euskarak aurrera egin al du bide horretan?

Euskarak hobetu egin du, dudarik gabe, orain dela hogeit hamar urteko euskararen maila eta gaurkoaren artean alde handia baitago, baina per-

tsonek, helduak bereziki, atzera egin dute. Askotan ikusten ditut euskaraz ederki dakiten helduak haurri euskaraz hitz egiten, baina helduen artean gaztelaniaz egiten dute. Horrek asko amorrarazten nau. Gainera, helduak oso ohituta gaude gaztelaniazko edukietara eta oso errotuta dauzkagu hizkuntza horretako pelikulak. Gaztekeraz oso ondo bikoiztuta daude pelikulak eta nahiago izaten dute horiek ikusi, euskaraz hain ondo bikoiztuta ez dagoen film bat baino. Haurren kasuan, aldiz, aurkakoa gertatzen da. Ohituta daude euskarazko bikoizketetara eta horientzat ez du inongo misteriorik areto batera joan eta euskaraz ikusteak, ez zaie arrotza egiten.

Horregatik bikoizten dituzue haurrentzako filmak soilik?

Bai, horrexegatik. Haurrek oso erraz ikusten dute eta gainera, behar dute. Azken finean, nire asmoa haur guztiek euskarazko pelikulak ikusteko aukera izatea da. Helduei, aldiz, zaila egiten zaie euskaraz ikustea eta filmak zein hizkuntzatan ikusi beraien esku dagoenez, guk ez dugu zereginik. Beraien hautua da.

Euskara irakaslea izan zara, beraz, aspalditik datorkizu euskararekiko lotura.

Bai, egunez lan egin eta gauez Gau Eskolan aritzen nintzen jendeari euskara erakusten. Betidanik izan dut euskararekiko lotura, Altzokoa izanda...

Benetan euskara maite duzulako egiten duzu orduan, ezta?

Bai, euskarak merezi du eta nire ustez, bakoitzak bere lan arloan euskararen gabeziak ikusi behako lituzke, horiek konpontzen saiatzeko. Ni abokatua banintz, euskararen alde dagoen guztia egingo nukeela uste dut eta justizia jauregietan gertatzen dena eragozten saiatuko nintzateke. Hau da, dudarik gabe, dena euskaraz jartzen saiatuko nintzateke. Baina nire kasuan, bikoizlea naizenez, filmak euskarara itzultzea da nire eginbeharra, euskal herritarrei aukera hori eskaintzeko. Kontuan hartu behar dugu hemen hizkuntza bat daukagula eta hizkuntza horretan bizi nahi dugunez, pelikulak euskaraz ikusten saiatu beharko genukeela.

Hezkuntza Sailak laguntzak kendu zizkizuen, ixtekoan ere egon zarete... Zer sentitzen da nahi baina ezin horren aurrean?

Berriro, orain dela hogeitun urteko egoera itzuli garela sentitzen dut. Hasiera txarrak izan genituen, eta dirudienez, amaiera okerragoa izango dugu. Sozialistek sekulako ostikada eman zioten euskarari eta euskaraz zen guztiaren aurrean aitziak jartzen hasi ziren, beste lehenetasun batzuk zeudela esanez. Gosea, krisia... nola gastatuko dugu ba dirua pelikula batean? Aitziak besterik ez genituen entzuten. Lehenagoko egoera emankor hori berreskuratzea kostako zaigu, baina, gutxienez, Gipuzkoako Foru Aldundiak laguntza eman digu ikasurte honetarako eta horrek animatuta, egin dugu aurrera. Datorren





Marian Galarraga bikoizketa lanetan murgildurik

urtean ikusiko da zer egin, beste zerbait aterako da aurrera jarraitzeko, guk behintzat, ez dugu etsiko. Etsaiak hori nahi du, Tinko gereztea, euskarara filmak itzuliz enbazaru egiten diegulako, baina ez dute lortuko.

Zinemara zuzendu zarete, zergatik ez, esaterako, telebistara?

Pelikulak egitean, eskubideak erosten ditugu, gure kasuan, Europan. Gehienbat Alemania eta Suitzan erosten ditugu eta behin hori egin da, lehenengo areto komertzialean estreinatzen ditugu. Ondoren, telebistan emitituko lirateke telebistak nahiko balu eta azkenik, DVDak ateratzen ditugu. Hau da, pelikularen banaketan leiho batzuk daude eta horiek errespetatu behar ditugu. Baina zer gertatzen da? EITBk ez duela euskarazko peliku-

larik nahi. Aurreko astean eskaintza bat egin nien, pelikula batzuk eskaini nizkien, telebistan emititzeko eskubideak ordainduta eta erosketa buruak erantzun zidan ez zitzaizela interesatzen, ez zela beraien lehen-tasunetakoa. Horixe, telebistan ez emititzearen arrazoia.

Film amerikarrak edo europarrak?

Disney ez zait gustatzen, hasteko, transmititzen dituen mezuak ez nituzkeelako nire umeentzat nahi. Benetako altxorak Europan daude eta oso pelikula on eta politak izaten dira, balore batzuk lantzen dituztenak. Hala ere, gertatzen dena da hainbeste pelikula egonda, denak ezin direla banatu. Espainian, esaterako, milaka geratzen dira estreinatu gabe eta guk horiek bikoizten ditugu, gure haurrek euskaraz ikusteko aukera izan dezaten.

Behin, behi bat hartuta joan zineten areto batera, «Banpiro Txikia» estreinatu zenutenean.

Bai, pelikula bat estreinatzen denean areto komertzial batean, promozioa oso garrantzitsua da. Ameriketatik Disneyko pelikulak etortzen direnean, pelikula bera ez da ona, baina egiten duten promozioa ikaragarria izaten da eta horrek saltzen du produktua. Tinkok baditu sormena eta irudimena barra-barra duten bazkide batzuk eta horiei esker gauza originalak egiten saiatzen gara.

«Banpiro Txikia»-ren kasuan, pelikulan eta kartelean behi zuri-beltz bat agertzen zen eta aretora huraxe eramatea otu zitzaigun. Beraz, Altzoko baserri batetik behia hartuta joan ginen. Haur guztiak harrিতa egon ziren egun hartan. Beste



behin, bideo bat grabatu genuen itsasoan. Itsasontzi batean Elena Iruretak mezu bat irakurri zuen pelikula euskaraz ikusi behar zirela esanez eta mezu hori botila batean sartuta uretara bota zuen. Ondoren, botila Hondarribiko hondartzara iritsi eta bertako haurrak irakurtzen ari zirela ikusten zen. Denetik egiten saiatzen gara.

Tolosaldean badago euskarara bikoiztutako pelikulak ikusteko ohitura?

Egiten den guztia Tolosara ekartzen dute. Euskarara bikoiztutako pelikula guztiak, edo euskaraz eginda-koak, den-denak jartzen dituzte. Alde horretatik, Tolosa da, nik uste, zinema zaletasuna sortzeko eta filmak euskaraz ikusteko punta-puntakoena. Bono sistema hori izugarria da eta gainontzeko herriek adibide hori jarraitu beharko lukete, sarrerak merkeago jarrita sortzen

delako zinemarako zaletasuna. Esaterako, Tolosan aurkeztu genuen azken pelikula «Agur esatea» izan zen eta Leidor bete egin zen.

Bertako dendetan aukera gutxi dago euskarazko pelikulak erosteko, ezta?

Egon beharko luke, guk DVD mordoan ateratzen dugu eta. Baina, egia da batzuk biltegian egoten direla, besteak bistan egon ordez, atzean ezkutatuta... Jendeak, askotan, pelikula eskatu egin behar izaten du, dendan ez direlako ikusten. Baina ikusten ez badira ez da guk ez ditugulako banatzen, baizik eta inor ez delako molestatu horiek bistan jartzeaz.

Zinema gustatzen al zaizu? Euskarara bikoiztutakoak?

Zinema ikaragarri gustatzen zait. Niretzat, ihesbide bat da, ametsak eragiten dizkit eta eguneko garraztasunetik ateratzeko irtenbidea da. Ahalegintzen naiz euskaraz ikusten, baina pertsonalki aitortu behar dut pelikulak jatorrizko bertsoan ikustea gustatzen zaidala. Helduok aukera dugu pelikulak jatorrizko bertsoan ikusteko. Nahi duenak, gainera, gaztelaniazko edo euskarazko azpigituluak izaten ditu. Hori bai, jatorrizko pelikulak ikustean, zuzenena itzulpena azpigitulu bidez egitea da eta ez batzuek egiten duten bezala gaztelerazkoa bikoiztu eta euskarazkoa azpidatziekin jartzea. Horrek ez du balio, tranpa egitea baita. Beraz, bi hizkuntzetan az-



pidatzita jartzea litzateke bidezkoena.

Pertsonalki nola bizi duzu euskararen egoera?

Oso amorrarazita. Gainera, zenbat eta zaharraago izan, orduan eta erradikalagoa jartzen ari naiz eta ez dut beldurrik, ez lotsarik ezertarako. Denda batera sartu eta lehenengo hitza beti euskaraz egiten dut. *En castellano, por favor* erantzuten didatenean ez dakidala esan eta alde egiten dut, ez bada oso beharrezkoa noski. Ez da posible Euskal Herrian, euskaraz bizi nahi dugunok denda batera sartu eta gaztelaniaz erantzutea. Oso erradikala naiz horretan. Izan ere, ahalegintxo txiki bat egin beharko lukete denek. Egoera hori ez dut ondo eramaten, euskaraz bizi nahi dut eta horrek sekulako amorrua ematen dit.

Gainera, elebitasun joera dago, euskara eta gaztelaniaz hitz egitekoa; esaldi bat gaztelaniaz, euskaraz bestea, euskaraz hasi eta gaztelaniaz amaitu... Bi hizkuntzak nahasten ditugu eta amorru handiena nire burua gaztelaniazko esaldi bat entzuten dudanean ematen dit. Oso errotuta daukagu elebitasun hau, burmuineraino sartuta. Horregatik, borroka egin behar dugu euskararen alde, guk egiten ez badugu nork egingo du ba? Guk egin behar dugu, horregatik jaio gara eta Euskal Herrian.





Galarraga egun Tinko Elkartearen lehendakari lanetan dihardu

Zein alde dago orain dela hogeiei urteko Marian eta gaurkoaren artean?

Zaharragoa naizela eta orain euskararen aldeko borroka gehiago egiten dudala. Badirudi gutxiago dudala galtzeko, eta adin honetan gainera, pentsatzen dudana esaten dut, inongo lotsarik gabe. Euskararen alde borroka egingo dut azken arnasa hartu arte.

Altzo faltan botatzen al duzu?

Bai, asko. Nire ibilbidea bertan amaitu nahiko nuke, Altzon jaio eta Altzon hil.

Zein da zure ametsa?

Jendeak euskara erabiltzeko ohitura izatea, hau da, euskaldunak behintzat euskaraz hitz egitea eta ohitura txarrak izanez gero, horiek aldatzen saiatzea. Bigarrenik, zine aretoetan pelikulak euskaraz ikustea nahiko nuke, eta ez hori bakarrik, zinean bezala baita gainontzeko lekuetan ere euskaraz inongo debekurik ez izatea.

Zer esango zenioke Tolosako familia euskaldun bati, semeari gaztelaniazko pelikulak soilik jartzen badizkio?

Beraien aukera dela eta beraiek ikusiko dutela zer egin. Nire egin-beharrak pelikulak euskaraz jartzea da eta gurasoena, berriz, euskaraz dagoen guzti hori beraien haurrei jartzea. Adibidez, ezagutzen dut familia bat telebistatik gabe bizi dena, beraien haurrei DVDak jartzen dizkietelako. Honek, gurasoek nahi duten edukia jartzen diete, euskaraz. Hori, noski, kontzientzia maila handia izatea da, baina denok jarraitu beharko genuke hortik. Izan ere, nahiz eta euskaldunak izan, jendeak ez dauka kontzientzia maila hori, eta garrantzitsua iruditzen zait jendeak kontutan jartzea gure egin-beharrak dela euskara mantentzea eta oinordekoei uztea. Ondarea utzi behar diegu, euskara utzi behar diegu, eta kontzientzia hori gabe ez

goaz inora. Nik behintzat, ondorengoak ez haserretzeko ahal duan guztia egingo dut.

Tinko Elkarteak, izenak dioen bezala, Tinko dirau, ze plan etorkizunerako?

Ostiralean, azaroaren 22an, «Tarzan Eskasa» estreinatu berri dugu Donostian. Marrazki bizidunak dira eta oso pelikula polita da, haur eta helduentzako aproposa. Gainera, larunbatean Irrien Lagunak bertan egon ziren giroa apur bat alaitzeko. Hortik aurrera, ikusiko da zer dakarren etorkizunak. Guk hor jarraituko dugu gure esku dagoen guztia egiten, baina ez dakit zein mailataraino lan egin ahalko dugun, ez baitago gure esku. Dirua instituzioek ematen dute eta beraz, guk ez dugu zereginik. Hala ere, ez dugu etsiko eta hor egongo gara jo eta ke. Beraz, ziur izan ahalegin guztiak egingo ditugula pelikulak euskaratzen jarraitzeko.

Lehen Karlistada ondorengo giro euforikoa Tolosan,



Tolosako Trianguloa plaza

Peio Joxe Aranburu Luis Mari Intzarekin batera prestatuturiko lanaz baliatu da Tolosan bizi izan zen I. Karlistada ondorengo giroa deskribatzeko

Peio Joxe Aranburu Ugartemendia
Etno-historialaria

Tolosan Lehen Karlistadaren aurre eta ondorengo giroa, 1836-1864, izeneko proiektu eta errealitate biren berri emanez, hasi dut idazlan hau. Luis Mari Intza eta biok Tolosa eta Norteko Trenbideari buruz proiektua eta liburuak idatzi genituen. Tolosaren inguruan eskema egin ere bai, 2005ean. Gero, Norteko Trenbideari buruzko beste saiakerak etorri ziren. Saia-kera haietako hainbat material erabiliko ditut, aldi honetako Tolosaldeko Atarian argitaratzeko. Hautaketa bat egin, idazkera arindu, aipua kendu eta irakurketa errazten saiatu naiz.

Historia 16

Hona jarraian lehen asmo hartako sumario bat:

- Lehen Karlistadari buruzko kronologia Tolosan bertako notario egoiliarren arabera
- Tolosako postarien buruaren iritzia
- Euskal aduana historikoen aldaketa
- Tolosa Gipuzkoako hiriburu
- Tolosan Udalak besterendu eta erositako finka eta alorrak
- San Frantzisko komentua besterendua
- Tolosan Gipuzkoako errepide-sarea eraiki eta konpontzen
- Tolosa komunikabideen Gipuzkoako erdigunea
- Tolosako industrializazio modernoaren hasierak
 - Olarraingo kobre-fabrika, 1834-1854
 - La Esperanza papelera, 1841-1860
 - lurramendiko "Fabrica de paños y tejidos" edo Oihal-ehungintzako fabrika: Araxesko presa eta ubidea eta lurramendiko fabrikaren zubia
 - Tolosako beste zenbait erakunde ekonomiko berri
- Tolosa Gipuzkoaren kultura-gunea, XIX. mendean
- Tolosa esperientzia ezberdinen kokagunea
- Ondorioak eta Norteko Trenbidea.

Gaurko artikulua honetan, ordea, nagusiki Tolosako giro euforikoa, hazkunde demografikoa, Tolosa ospakizunetan, Gipuzkoako hiriburu, Donostia eta Tolosako liberalen trenbidearekiko ardurak azpimarratu dira. Gero landuko dira Tolosari buruzko beste gai historiko batzuk.

Tolosaren hazkunde demografikoa: Lehen Karlistadaren ondoren kokatuz, 1841ean, Joakin Montesino Tolosako postarien buruak egin dako galdeketa interesgarria izan zen herriko testuinguru sozio-politikoa jakiteko. Aipatu postariak udalari, martxoaren 20an, galdera hauek egin zizkion: Tolosako biztanleriaren hazkundeaz; etheen errentak hirukoizteaz; jakien neurri bereko igoeraz; San Franzisko komentua izan ezik, ea beste eraikinik bazeukan estatuak Tolosan. Gainera, J. Montesinok itaunketa luzea gehitu zion bertako posta-zerbitzuari buruz.

Herriko lau tolosarrek, etxe-jabe bat eta hiru merkatarik, beste batzuen artean, erantzun antzekoak eman zizkioten, hau da, populazioa asko igo zela... Etxe-bizitzaren falta zegoelako eta bizimodua erruz igo zelako, posta-zerbitzariak gau eta egun lanean ziharduten. Tolosa hazkunde prozesu ero baten barruan ikusten zuten tolosarrek.

Serapio Mugicaren arabera ere, Tolosa, 1834. urtean 5.799 biztanle izatetik 1853an, 8.300 biztanle izatera igaro zen. Kontuan izan behar da tartean Lehen Karlistada aldia izan zela. Beraz, hazkunde beldurgarria izan zuen, eta aipatu Tolosako postariaren ideiak egiaztatu zituen Serapiok.

Tolosa Gipuzkoako hiriburu: Gipuzkoako Foru Aldundia eta Buru Politi-



koaren bi egoitzak Tolosan kokatzeko dekretua, 1844ko urtarrilaren 19an, Madrilen, Gobernuako ministerioan Peñafloredako markesak eman zuen. Egoera hark hamar urte iraun zuen. Erabakiak Lehen Karlistada aurreko oinarri eta zuztarrak zituen eta Ordiziako Batzar Nagusietan, 1842an, berretsi zen Gipuzkoako Foru Aldundiaren (GFA) egoitza Tolosan kokatzea, herrialdearen erdigune naturala Tolosa zelako eta ez Donostia. Asteasuko



Udalak aurrez erabakia hartua zuen, Asteasu historikoki beti izan da Tolosa zale. Ondoren, elur bolaren antzo, beste herri hauek erabaki zuten: Ormaiztegi, Beasain, Segura, Lazkao, Olaberria, Ikaztegieta, Alegia, Itsasondo, Ataun, Zegama, Zerain, Gabiria eta Oñatik. Azkenik, uztailaren 2an, Legazpi, Bergara, Tolosa, Azkoitia, Anoeta, Urretxu eta Zumarragak ere eman zuten urratsa. Donostian egoitza jarraitzearen alde, berriz, Donostia eta Gipuzkoako Buru Politikoa azaldu ziren, soilik. Hala ere, Buru Politikoa, abuztuaren 19an, gaiari bu-

ZABALA DESGUAZEAK
KUDEATZAILERIA BAIMENDURAK
EU2/111/04

BEITIBAR INDUSTRIALIA, 18 - BELAUNTZA
TEL./FAXA: 943 671 790
MUGICORRA: 016 393 347

KEY-LAN
SARRAILGINTZA

Nafarroa etorbidea, 13-behea
20400 Tolosa
Mobila: 670 417 922
Tel./Faxa: 943 650 313

R A K U

Arostegieta kalea, 2 - Tolosa

IG GORRI

Paper manipulazioa alor
makina erakuntza

Krupenaketa
eta mantentzeak

Ignacio Zubizarreta
Barandakale 20 - Barro
TEL.: 943 671 100
FAXA: 943 671 106

Mahala
PASTELERIA PRODUCTORA

bertan elaboratutako
esneki eta txerriki
natural naturalak

www.mahalanaturala.com || 943 67 07 24

ruzko akta batean GFari iritzia eskatu eta Madrilen eskuetan utzi zuen azken erabakia.

Tolosa ospakizunetan. Urte berezia gertatu zen 1844. urtea. Tolosako San Joanetako zezenketek aspaldidanik zuten aparteko sona eta oihartzuna. Urtero maiatzaren hasieran udala eta erruki-etxeak elkarrekin izendatzen zuten hartarako batzorde bat eta notario aurrean hitzarmena sinatzen zen, xehetasunak eta baldintzak zehatz finkatuz. Tolosan urte hartan, ordea, zezenketa berezi-bereziak antolatu ziren bi arrazoiengatik, alde batek, tolosarrek erreginaren bisita espero zutelako eta, bestalde, Tolosa Gipuzkoako hiriburu izendatua izan zelako.

Manuel Lizaraburuk Gaztelako Ate ondoan Portaletxe eraikuntza berria egin eta bertan egoitza izan zezan, GFAari bederatzi urterako errentan eman zion, urtero 13.000 erreal ordaintzekotan.


Liberalen guneak Donostia eta Tolosan: Donostiak beti izan du liberal fama,



ez hainbeste Tolosak. Hala ere, bi liberal taldeek nahiko ongi eraman zuten elkar. Donostiako Luzuriaga, Kollado, Lasala aita-semeak, Brunet, Etxague, Mendizabal, Amilibia, Kalbeton eta Altzate talde eragile hark eta Gipuzkoako agintariek elkarrekin batera bultzatu zituzten errepide, trenbide sare eta merkantzien garraioa. Donostian ez-eziz, Tolosan ere bazen liberal talde bat, Luis Mariategi, Pablo Gorosabel, Martin Urreztieta, Furundarena notarioak eta abar. Ramon Lizartaburu legegizonak, Gorosabelen lagunak, 1858. urtean, Tolosako alkate izateaz gainera, J. Fermin Furundarenaren notaritzan «Tolosanos» izeneko trenbide berriaren aldeko diru-biltze deialdia egin zuen. Trenbidea hemendik igarotzeko, neurri erabakigarria izan zen agindua. Luis Mariategi tolosarrak eta Fermin Lasalak, 1857an, biek Parisen Sociedad General de Crédito Mobiliario Español (SGCME) Péreire anaia enpresako buruekin hitzarmena gauzatu zuten Norteko Trenbidea Gipuzkoan eraikitzeko.

Gainera, Martin Urreztieta SGCME enpresako idazkari tolosarrak, Furundarenaren notaritzan, 1858-1864 urteetan, Gipuzkoa osoan besterendutako trenbideko finka eta alor ia guztiak eskriturak bertan gauzatu zituen. Bestalde, Pablo Gorosabel Gipuzkoako korrejidore, herriko alkate eta zinegotzi urte anitzetan izateagatik eta Tolosaren alde lan asko egin zuelako, Rondilla kale berriari bere izena ipini zitzaion.

Giro euforikoa sumatu zen Tolosan, alderdi zaharra eztanda arazi, kale berriak sortu, demografia erruz hazi eta horren jabe egin zirelako. Herrialdeko hiriburu bilakatu zen hamar urtean behintzat, eta trenbidearen eraikuntzari donostiarrekin batera buru-belarri ekin zioten. Trenbidearekin Donostia gailendu zen, ordea.



Luis Mari Intzak eta Peio Joxe Aranburuk prestaturiko lanaren azala



saridunak

Atarikideentzat sarrera pare bat dugu

- Maria Jesus Garmendia (Tolosa)



Gipuzkoa Basket Club
Rio Natura Monbus
Saskibaloia partida


Abenduak 1, igandea 12:15ean
Donostiko Ilunben



Atarikideentzat CD berriaren ale bat dugu

- Begoña Iraola (Tolosa)

Pirritx,
Porrotx eta
Marimototxen
BIZIPOZA



Atarikideentzat bi ale ditugu

- Regina Tolosa (Anoeta)
- Jose Mari Aranzabe (Alkiza)

Maite
Gurrutxagak
ilustraturiko
HABIAK
liburua



Sarrerak, cd-a eta liburuak jasotzeko, Atariaren egoitzatik pasa.

Farmaziak



Azaroak 30, larunbata

Tolosa
Egunekoa eta gauekoa:
Morant, R. Zabalarreta, 1.
Telefonoa: 943 67 38 49.

Abenduak 2, astelehena

Tolosa
Egunekoa eta gauekoa:
Bronte, C.
Korreo, 20.
Telefonoa:
943 67 60 13.

Azaroak 29, ostirala

Ibarra
Egunekoa eta gauekoa:
Lejeune, L.
Euskal Herria, 46.
Telefonoa: 943 67 32 74

Abenduak 1, igandea

Tolosa
Egunekoa eta gauekoa:
Echeveste, J.M.^a.
Gernikako arbola, 3.
Telefonoa: 943 65 10 40.



Iragarki laburrak

LAN BILA

Etxeko lanetarako: etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko, esperientzia haundiko emakume eskaldunak bere burua eskaintzen du. Kotxea ere badauka. 943 696882 / 606 521992

Hilberriak eta urteurrenak



I. urteurrena

**Jose Mari
Semperena Esnaola**

2012ko azaroak 30ean hil zen, 88 urte zituela

*Ez da agur esaten
nor bait maite duzunean,
maitasuna ez delako joaten
bihotzean gorderik dagoenean.*

Bere familiakoek gonbidatzen zaituztete, IGANDEAN eguerdiko 12:00etan Goiatzko elizan egingo den mezara.

Goiatzen, 2013ko azaroaren 29an.

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu
ataria@ataria.info • Tel.: 943-65 56 95

agenda

HITZALDIA

«Argi-Itzalen neurria» autorearekin **so-lasean**. Xabier Artola idazleak eskainitako tertulia. Azaroak 29, ostirala. Alkiza, Fagus (19:30).

Hondakinen prebentziori buruzko europar astea. Paketeria jasagarria, merkatarientzako tailer praktikoa. Azaroak 29, ostirala. Tolosa, Kultur Etxea (14:00-16:00).

40 urte ondorengo osasun desorekak, jatorria eta zuzentzeko terapiak. Hizlaria: Manuel Huertas. Azaroak 29, ostirala. Amezketeta, kultur etxeko areto nagusia (20:00).

DANTZA

Erimak oinetan. Dantza-bertso ikuskizuna. Sarrera: 3 euro. Azaroak 29, ostirala. Anoeta, Mikelasagasti auditorioa (22:00).



ANTZERKIA

Figuranteak


Sarrera: 5 euro. Azaroak 29, ostirala. Villabona, Gurea (22:30).

Como como coco me des-coco poco. Teatro que madura. Azaroak 30, larunbata. Aduna, Asvinenea (20:30).

PAILAZOAK

Tiritatxo eta Largabista Irrien Lagunekin. Azaroak 29, ostirala.

Ikaztegieta, udaletxeko aretoa (17:00).



AUZOLAN FESTA

Elkarrekin. Azaroak 30, larunbata. Tolosa. *Ikusi egitarau osoa 23. orrialdean*.

ZINEA

Epic. Haurrentzako filma. Sarrera: 3,5 euro. Azaroak 30, larunbata (17:00) eta abenduak 1, igandea (17:00). Villabona, Gurea.

Kon-Tiki. Azaroak 30, larunbata (19:30) eta abenduak 2, astelehena (20:30). Tolosa, Leidor.

El Mayordomo. Azaroak 30, larunbata (22:00); abenduak 1, igandea (19:30) eta abenduak 2, astelehena (21:00). Villabona, Gurea.

Don Jon. Azaroak 30, larunbata (22:30) eta abenduak 1, igandea (19:30 eta 22:00). Tolosa, Leidor.

KONTZERTUAK

Tokyo Sex Destruction eta Tuya. Azaroak 29, ostirala. Tolosa, Bonberenea (22:30).

Agoraphofia eta Rei Kimera. Azaroak 30, larunbata. Tolosa, Bonberenea (22:30).

Bizirik eta ostikoka! Jaialdia. Azaroak 30, larunbata. Ibarra, Gaztetxea (18:00).

TITIRIJAI

Tolosako Nazioarteko Txotxongilo Jaialdia

La leyenda del grillo y la hormiga. Buho-Maravillas. Andaluzia.

Azaroak 29, ostirala (11:00 eta 14:00) eta azaroak 30, larunbata (17:00). Tolosa, Leidor

El caballo de Troya y la pequeña Helena. Eugenio Navarro. Katalunia. Azaroak 29, ostirala. Tolosa, Topic (11:00, 14:00 eta 18:30).

Praktika ezazu ingelesa txotxongiloekin jolastuz tailerra. Doakoa. 40 plaza. 6-12 urte bitarteko haurrentzat. Azaroak 30, larunbata (10:30-12:30).



agenda

La oveja negra. Teatro Distinto. Italia. Azaroak 30, larunbata. Tolosa, Topic (18:30).

El espejo de las hormigas. Pupella Nogues. Frantzia. Abenduak 1, igandea. Tolosa, Topic (12:00 eta 18:00).

A la deriva Joc. La liga teatro elástico. Mexiko. Abenduak 1, igandea. Tolosa, Leidor (17:00).

KIROLA

Herri-krossa. Gazte-helduen herri krosa plazan (12:00) eta bertso bazkaria Kuku Elkartean (14:00). Azaroak 30, larunbata. Anoeta, herriko plaza.

XI. Herri Krossa. Gazteena (16:00) eta helduena (17:00). Izena ematea: www.herrikrossa.com. Ondoren parte hartzaileentzako merienda eta talo jana. Gazteek karaokea Etxolan, afaria Gaztetxean. Azaroak 30, larunbata. Berrobi.

Mendi irteera. Oargi mendi elkartearen mendi irteera Lekandara. Abenduak 1, igandea.

Aralar Kirolak dendaren 35. urteurrena. Azaroak 30, larunbata. Nordic Walking ikastaroa (10:00-13:00), helduek eta gaztetxoek parte har dezakete, dohainik, aurretik dendatan izena eman behar da. Tirolina erraldoia (16:00-19:00), ume eta gaztetxoeei zuzenduta. Zuzendari txiki-Zerkausia. «Ametsak janzen» erakusketa ikusgai Aralar Kirolak dendan.

Tantaz Tanta, Botez Bote! Pilota Jaialdia.

Azaroak 30, larunbata. Villabona, Bear-zana pilotalekua (18:00).

TOLOSA&CO

Azaroak 30, larunbata. Berbena eta antzerki ikuskinak. Tolosa, Oria kalea (18:00).

LARRAULGO KULTUR ASTEA

Azaroak 29, ostirala. Umeentzako merienda eta eskulanak, Katillu-Txulo elkartean (17:00); Jazz musika emanaldia, Mal-dataskull hirukotearen eskutik, San Esteban elizan (19:30); afaria eta ondoren Joxe Ramon Aldasoro txiste kontalaria, Katillu-Txulo elkartean (21:30).

Azaroak 30, larunbata. «Antzinako eran egurra lantzeko proiektuaren» jarraipena, DINa7 taldearen eskutik, museo inguruan (10:00); jostailu zaharren eta mailuen erakusketa museoan (11:30-13:00 eta 16:30-18:00); mus txapelketa Katillu-Txulo elkartean (16:00); Larraulgo egutegiko argazkien aukeraketa, Udaletxeko sarreran (16:30-18:00) eta Jon Maiak zuzendutako «Gazta zati bat» proiektioa, kultur etxean (19:00).

Abenduak 1, igandea.

Mendi irteera herria ezagutzuz (10:00); jostailu zaharren eta mailuen erakusketa museoan (11:30-13:00 eta 16:30-18:00), pilota partiduak frontoian (16:00); Larraulgo egutegiko argazkien aukeraketa, udaletxeko sarreran (16:30-18:30) eta talo eta gaztaina jatea Katillu-Txulo elkartean (18:00).



BALIARRAINGO UDAZKEN KULTURALA

Azaroak 30, larunbata. Haurrentzat eskulan tailerra, Olentzero egitea. (16:00)

Abenduak 1, igandea. «Hiru» antzerki emanaldia areto nagusian (17:00). Ondoren, jubilatuek afari-merienda izango dute Zartagi jatetxean.

JABEKUNTZA ESKOLA

Azaroak 30, larunbata. «Nik ere baditut ikasketak, nola homologatu?». Tolosa, Abastos eraikuntza (16:00).

GAZTAINA JATEA

Alegia. Jubilatuen gaztaina jatea. Abenduak 1, igandea. Jubilatuen egoitza (19:00).

AURKEZPENA

Azaroak 29, ostirala. «Tolosako Txistulariak» Mikel Telleriaren monografiaren aurkezpena. Tolosa, udaletxeko batzar aretoa (20:15).





Auzolan Festa, euskaraz bizi nahi dutenen aldarrikapen jaia



LOMCE legeari buruzko mahai-ingurua, Tolosako kultur etxea. i.u.

Lizardi Elkartearen ekimenez antolatu da «Auzolan Festa» deiturikoa. «Ekimen euskaldunak auzolanean elkarrekin» izenburupean jorratu da euskararen aldeko proiektua

NAIARA ROLDAN DE ARANGUIZ TOLOSA

«Auzolan Festa» errealitate izatea Tolosako hainbat eta hainbat eragileren erantzukizuna izan da. Amaiera festa larunbatean lehertuko da.

Mahai-inguru eta hitzaldi ziklo batekin hasiera eman zaio «Auzolan» ekimenari. Azaroak euskararen bueltan hausnarketarako gaia ekarri die Tolosaldeko herritarrei. Azaroaren 7koak LOMCE legea aztertu du, orduan sindikatuak hizlari

aritura; azaroaren 14koak Koldo Zuazoren «Nafar estatuaren konkistaren eragina, euskararen bilakiera historikoan» hitzaldia plazaratu du.

Azken bi mahai-inguruak Tolosako bestelako ekimenak aurkezteko bidea ere izan dira. Azaroaren 21ean «Euskarazko hedabideen iragana, oraina eta geroa» euskarazko komunikabideetako ordezkarien ahotsean aztertzeaz gain, eskualdeko proiektu komunikatibo berria ere aurkeztu da: Tolosaldeko

Ataria. Azken mahai-inguruaren ardatza berriz, euskararen normalizazioa izan da, azaroaren 26an ospatuta: «Euskararen normalizazioaren iragana, oraina eta geroa». Aurretik, Galtzaundi Euskara Taldeak «Tolosa, euskararen hiria» proiektua herriratu du.

Orain artekoaren balorazioa

Hitzaldi eta mahai-inguru ziklo honen ardura Galtzaundi Euskara Taldearena izan da, Elkarrekin proiektuaren baitan. Behin hausnarketa saioak ospatuta, balorazioa eskaini dio Galtzaundiko koordinatzaile Igor Mujikak Tolosaldeko Atariari: «Balorazio oso positiboa egiten



Auzolan festa

AZAROAK 30, LARUNBATA

Mahai-inguru eta hitzaldi zikloa, eduki alderdia, «Auzolan Festa»-ren hasiera baino ez da izan, datorren larunbatean, azaroaren 30ean, egun osoko jai hartuko duen egitaraua prestatu dute Tolosako 16 eragilek elkarrekin:

10:00etan. Diana. Tolosako dultzaineroekin.

10:30ean. Gastronomía lehiaketa. Parte-hartze irekia. Babarrunak prestatu beharko dira. Trianguloan

11:00etan. Bertso poteoa Tolosako elkarteetan -edonorentzat irekiak-. Oargiko txaranga txikiak alaitua. Erraldoiak, dultzaineroak, Uda-berriko dantzariak eta Tolosa Kantarikoak ariko dira Alde Zaharrean.

13:00etan. Auzolan Festa. Euskaraz Bizi! Alde Zaharra inguratuko duen kalejira koloretsu eta alaia izango da. Trianguloa plazatik abiatu, Solana kalean zehar Plaza Zaharrera iritsi, Kale Nagusia zeharkatu, Gorriti plaza eta Gorosabel kaleak igaro eta berriro ere Triangulora iritsiko da. Euskaraz bizi nahi dugu! aldarrikatuko da jai giroan.

14:30ean. Herri bazkaria, Trianguloan. Bi aukera: bazkari txartela ordaintzea edo norberak bere bazkaria eramatea eta soilik edaria ordaintzea.

16:00etatik eta 18:00ak bitarte. Ume jolasak. Aurpegi margotzea, eskumuturrekoak egiten ikastea, bestelako tailerrak... Eguraldi ona bada Trianguloan, txarra bada Zerkausion.

17:00etatik eta 19:00etara. Dantzaldia Zerkausion. Zesuma taldearen emanaldia.

19:30etik 22:00etara. Alde zaharreko kaleetan zehar, Elektro-txaranga.

dugu. Aurrera begira, Atariarekin eta eragile berriekin segi beharreko dinamikaren abiapuntua izan da».

Hitzaldi eta mahai-inguruen materia nabarmendu nahi izan du Mujikak. Are gehiago, iritzi ezberdinak biltzeko gune ere izan dira ospatutako saioak: ELA, LAB, STEE-EILAS, Berria, Argia, EITB, Ataria, Galtzaundi, EJ, Topagunea, Kontseilua, GFA... «Nazio mailako ordezkariak Tolosan euskaraz eman dizkigute azalpenak», azaldu du Galtzaundiko ordezkariak. Honekin guztiarekin, «Tolosa, euskararen hiria» bilakatzeko pauso berria eman da.

Hartzaileei dagokionez, aniztasuna azpimarratu nahi izan du Igor Mujikak: «Izaera eta adin ezberdineko pertsonak bildu dira; txalotzeko elkarri erakutsitako errespetua». Errespetua ere bada antolatzaileraren artean erakutsitakoa: «Bakoitzaren izaera eta erabakitze-ko eskubidea errespetatuz, elkarri-anean eraginkortasuna eta osagarri-



tasuna landu daitezkeela erakutsi dugu. Euskararen erabilera indarbertzeko, zalantzarik gabe, bide horretan sakondu eta bidaide berriak topatu beharko ditugu. Ilusioz gara, aurrera egiteko gogoz, alegia», laburbildu du Galtzaundi Euskara Taldeko ordezkariak.



«Auzolan Festa»-ren aurkezpena, eragile ezberdinak ordezkaturik. i.u.



Mikel Agirre:

«Euskaraz aritzea eta gozatzea da gure gonbitea»

Lizardiko kide Mikel Agirre Auzolan Festaren antolakuntzaz, jatorriaz, zergatiaz, helburuaz eta aurrera begirako erronkez mintzatu da Tolosaldeko Atariarekin

NAIARA ROLDAN DE ARANGUIZ TOLOSA

Auzolan Festa ospatuko duzue larunbatean, izenak berak argi azaltzen duen moduan, «auzolanean» prestaturiko jaia da.

Denbora asko pasa dugu eragileak biltzen, hasieratik oso argi genuen ahalik eta parte-hartze zabalena eskuratu behar genuela, ia irailera arte horretan aritu gara. Eragile berriak etorri heinean ekimenaren helburua esplikatu zaie, asmoarekin bat etorritz gero, batu egin dira. Horrela poliki-poliki 16 eragile elkartu gara. Horietatik aparte gainera badaude parte hartuko dutenak, baina epeak medio, kartelean ageri ez direnak.



Eragile aniztasun horrek festari oihartzuna ematen lagunduko dio...

Bai. Benetan anitza dela! Denetatik dago: Amaratzeko guraso elkarte, Kazkabarra aisialdi taldea -16-20 urte bitarteko gazteak biltzen dituen-, Udaberri dantza taldea, dultzaineroak, buruhandiak, elkarte gastronomikoak, elkarte kulturalak, Galtzaundi... erabat anitza.

Nola lortu duzue elkarren arteko uztarketa hori posible izatea?

Iaz, Lizardik bultzatuta, Nafar estatuaren urteurrena zela probesturik, «1512. Nafar estatua gogoan» jardunaldia antolatu genuen. Orduan ere parte hartze handia bilatu nahi izan genuen. Behin jardunaldiak bukatutakoan, balorazioa egiteko afari batean bildu eta hurrengo urtera begirako planak hasi genituen.

Aurtengo abiapuntua berriz ondorengo izan da: Tolosan lehen aldiz Euskal Festak antolatu zirela 100 urte bete dira. Lizardiren asmo honi, Udaberri dantza taldeak duela urte batzuk, festa hau berreskuratzeko egindako saiakera gehitu behar zaio. Udaberri dantza taldearen orduko saiakerak ez zuen eragileen indar nahikorik bildu eta erromeria ospatzeari ekin zion.

Aurtengo ospakizuna antolatzeko lehen asmoa beraz Euskal Festari heltzea izan zen. Baina eragile ezberdinekin egindako bileretan, barne-hausnarketa horietako batean ondorengo iritzia aurkeztu zen: «Bertan egiten dugun oro 'euskal' izan behar ote den? Euskal Herrian egiten den edozein festa euskal festa da». Orduan, eragile bakoitza bere ekarpenak egiten joan zen, hasieran Euskal Festa zena, iraila amaieran Auzolan Festa bihurtu zen.

Hausnarketak oso garrantzitsuak eta sakonak izan dira. Adibide bat baino ez dira ondorengoak: Tolosan astebururo ekimen kulturalak antolatzen dira baina eragile ezberdinen artean antolatutakoak oso gutxi



Agirre Lizardin, duela 100 urteko Euskal Festaren irudia atzean. i.u.

dira; Tolosako elkarte gastronomikoak toki itxiak dira, bazkideentzat baino ez irekiak; belaunaldien arteko harremana Tolosan ez dago zabaldua eta horrek kultur transmisioa zaildu egiten du...

Hausnarketa hauek eta beste asko kontuan hartuta, larunbateko egitaraua osatu dugu.

Egitarau horren baitan ekitaldi nagusietako bat eguerdikoa izango da, alde zaharra «Euskaraz bizi nahi dugu» leloa oihukatuz inguratzea...

Bai horrela da eta galdera honi erantzuteko proiektuaren mamia azaldu nahiko nuke. Auzolan Festa,

«Elkarrekin, ekimen euskaldunak auzolanean» proiektu oso baten baitan kokatzen da. Elkarrekin beraz proiektu bat da. Eta edozein proiektuk bezala bi osagai behar ditu gutxienez: helburu nagusia eta helburu hori aurrera eramango duten pertsonak.

Gure kasuan, gure helburua «euskaraz bizi nahi dugu» leloa da. Pertsonak berriz, garrantzitsuena dira, proiektua aurrera eramango dutenak.

Horrenbestez, gure nahiak ekimenetan bihurtu ditugu eta ekimen horietako bat «Auzolan Festa» bihurtu da. Larunbatean, egun osoan zehar, ekimen ezberdinak medio, festa giroan ariko gara baina momentu bat hartu nahi genuen, «Euskaraz bizi nahi dugu» aldarrikatzeko. Horregatik, alde zaharra zeharkatuko duen kalejira antolatu dugu.

Horretarako, herritarren partaidetza ezinbestekoa da.

16 eragile aipatu ditugu baina horrez gain Udaletxetik, Tolosako ikastetxeetatik, Banaiz Bagara elkartetik zein Aitzol Udal Euskaltegitik laguntza izugarria jasotzen ari gara ekimena zabaltzeko orduan.

Elkarrekin proiektuaz mintzatu zara, behin larunbateko festa ospatuta, aurrera begira zer erronkei helduko diezue?

Behin Auzolan Festa ospatuta, jendea gogotsu dagoen ikusiko da... Hala ere, hartutako bidea oso polita eta aberasgarria da, elkarrekin gozatuz ikasi dugu. Hainbeste partaide izanik, adosten ikasi dugu. Erabili dugun formula batzarrarena izan da, lan-talde ezberdinak antolatu dira; batzuk bazkariak arduratu dira, beste batzuk hitzaldiak antolatzeaz... Bakoitzak bere proposamena bere arloan egin du eta ondoren batzar batean adostu egin da. Dinamika mantsoa baina aberatsa da; onartzen dena, guztiok onartzen dugulako, jendea inplikaturik sentitzen da. Jendea inplikaturik sentitzeko informazioa eta motibazioa behar dira. Horixe da formula.

Euskararen eguna ospatuko duzuela ezin ahaztu.

Hasiera batean Euskal Festa zelakoa, iraila inguruan ospatu nahi genuen baina egitarauak euskararekin zuen lotura ikusita, Galtzaundik, abenduaren 3a kontuan hartuta, azaroaren 30ean ospatzea proposatu zuen. Batzarrean planteatu eta onartu egin zen.

Gonbidapena luzatzea dagokizu orain.

Herritar guztiei larunbateko festan parte hartzeko gonbidapena zabaldu nahi diet. Oso egun polita izango da: buruhandiak, dultzaineroak, Tolosa Kantari, Irrien Lagunak, Poxpolo... denetarik izango da herria alaitzen. Bertso-poteoa ere parte-hartzeko izango da, elkarteak herritar orori irekiko zaizkiolako. Euskaraz aritzea eta gozatzea, hori da gure gonbitea.



Udal Saila



Gabonetako **kaleetako** **apaingarriak, ikasleek eginak**

Tolosaldeko 8 udalerritako ikasleek eginiko apaingarri jasangarriak emango diete kolorea gure kaleei.

Urtero bezala ikasturte honetan ere Tolosaldeko 12 herritako ikastetxeek gogotsu ekin diote Eskolako Agenda 21 proiektuari. Aurten Energia Jasangarria izan da lantzekoa aukeratutako gaia, dagoeneko ikastetxeetako diagnostikoa egiten ari dira eta hobekuntzak pentsatzen: Egoiak al dira gure eskolako instalazioak? Zein jarrerara daukagu energiaren erabilpenaren aurrean? Posible al da gure ikastetxeetako eraginkortasun energetikoa hobetzea?

Herriari dagokionez, geroz eta gertuago ditugun Gabonei loturik burutuko dituzte lehenengo ekintzak. Txikienek «Gabonak eta kontsumoa» izeneko ekintzaren barruan gure herri eta hirietan egun hauetan areagotzen den gehiegizko argitasunak ingurugiroan duen eragina ezagutuko dute Tolosako Ingurumen Zentrotik prestatutako

txotxongilo eta eskulan saioen bitartez. Gainontzekoek, arazo honetaz jabetuta, herrian jartzeko apaingarri jasangarriak egingo dituzte: material berrerabiliekin eginak eta energiarik behar ez dutenak. Ibarran dagoeneko azken hiru urteetan eginiko ibilbidea ikusirik, Tolosak bere urratsak ematen jarraituko du.

Aurten Ibarrako ikastolaz gain, Aduna, Alegia, Anoetan, Berastegi, Zizurkil, Villabona eta Tolosako ikastetxeek apaingarri jasangarriak egingo dituzte eta herri horietako udalak dagoeneko material biketarako eta apaingarriak jartzeko beharrezko laguntza eskainiko diete; izan ere, Eskola Agenda 21 programa udalek finantzatutako sentsibilizazio eta hezkuntza proiektu bat da eta udala eta ikastetxearen artean jasangarritasun hezkuntza txikiaren artean bultzatzea du helburu. Ekintza Tolosaldea Garatzen garapen agentziaren koordinaziopean eramaten da aurrera eskualdean.



Tamalez aldarrikapen eguna da, oraindik ere, azaroaren 25a. Emakumeenganako indarkeriak gora egin du azken urtean, eta gorakada hau nabarmena izan da gazteengan. Pasa den larunbatean Tolosan egindako flashmobearen ehunka gaztek erakutsi zuten indarrak, balio dezala gizartearen gaitz hau sendatzeko. Eta Berri Txarrak taldeak *Emazten faborez* abestian dioen moduan, «gaur ez dago minutuko isilunerik; mendeak daramatzagu ixilik». ITZEA URKIZU

Urteroko zita



OLATZ ETXEBERRIA MASA
IKUS-ENTZUNEZKO EKOIZLEA

Derrepente izan da, urtero bezala. Derrepente jarri dituzte argiak kaleetan, eta derrepente agertu dira turroiak eta mazapanak dendetako erakusleihoe-tan eta apaletan. Egun batetik bestera konturatu naiz Gabonen atarian gaudela, dagoeneko. Eta Eguberrien ateetara iristearekin batera, beste ate batzuk noiz zabalduko irrikaz nago. Izan ere, abenduaren 5etik 8ra ospatuko da aurtengo Durangoko Liburu eta Disko Azoka, euskal kultura maite dugunon urteroko zita. Nik, behintzat, ez dut huts egingo. Gogoratzen dut txikitik, gozo-dendetako erakusleihoe-tan bezala, zein liburu eta zein disko hautatu jakin ezinik ibiliko naizela, liluratuta. Nobedadeak, herri musika, talde berriak, mahai-inguruak, solasaldiak, hitzaldiak, antzerkiak, kontzertuak... Denetik eskaintzen baitu Azokak, 48 urtek emandako esperientzia zabala baliatuta.

Erraz esaten da, baina jende askoren lana dago urte horien guztien atzean.

Aurten gainera, eskaintza nagusienetakoa musika izango dela azpimarratu dute antolatzaileek, hainbat estilotako talde eta bakarlariak egongo direlako.

Aipatu, etxeko txikientzat ere eskaintza zabala eskainiko duela.

Plan polita izaten da urteroko hau, nire kasuan behintzat. Goizean nobedadeez gozatu, liburu eta disko interesgarriak usaindu, ikusi, erosi..., ondoren Ahotsenera sartu, taldeen kontzertuak entzun, tartean antzerkiren bat badago hori ikusi, eta azkenik Durangoko alde zaharrean poteatzen ibili.

Beraz, euskaltzale guztiak animatu nahi ditut hutsik egin gabe Durangora joatera, merezi duelako, merezi dugulako!

Merezitako tortilla pintxoa



TXOAN ORMAZABAL ZABALA
IKASLEA

Zer da ba ordu erdi bat? Tolosatik Donostiarako bidaia zuzeneko autobusean. Parrandan telefonorik gabe galduz gero lagunak aurkitzeak jotzen duena. Iratzargailua bost minutuka atzeratuz gauari eransten diogun plazer txikia. Edo ikasten ari garela telebista aurreko bost minutuko deskantsuak irauten duena, besteak beste.

Gutxi dirudi, baina hileko hirugarren astelehenetako ordu erdiek luze jotzen dute nonbait tolosar askorentzat. Gehientzat. Ehundik hiruk soilik erabiltzen baititu Kultur Etxera igo eta odol apur bat emateko.

Gai hau mahai gainera ateratzen denean, ez da makala izaten jendearen sormena odolik zergatik ematen ez duen justifikatzeko. Orduetako txandak itxaron beharra, boligrafoak baina lodiagoak omen diren orratzei beldurra, bizilagunaren koinataren amaginarreba behin zorabiatu egin zela... Edozer, esku-ohean sabaira begira egon beharrean Euskal Herri plazan terraza saio bat egiteko. Errezeloa dut, ordea, noizbait istripu bat izan eta larrialdietara aranpasa bat baino lehorrago eramaten badituzte, ez diela hainbesteko hotzikaririk emango ditzosozko orratzak.

Ikuspegi berekoienetik ere abantailak besterik ez ditu odola emateak. Tentsioaren berri jakin, analisi bat egin eta tortilla pintxo bat jan ondoren bueltatzen baita bat etxera. Zainetatik galdutakoa kontzientzian irabazita.

Utzi aitzakiak alde batera, eta jarri praktikan aldare-tik kanpora ere beste hark zioena: abenduaren 16an eman dezagun guztiok geuretik, hau gure odola da eta, bihar jaso nahi dugunez, gaur emango duguna.

Adunatik Arditurrira



**MIGUEL ANGEL CESTA
IRAKASLEA**

Arditurriko mina zulo zaharrak ez du lu-
rrazpiko isiltasunean ahaztea nahi.
Erromatar garaian, duela 2.500 urte,
granitozko Aiako Harriaren mendigune-
aren inguruko gizon-emakume batzuen
bizibeharrak bultzatuko zituen harkai-
tzean zuloa egitea. Garai hartako bizi-
modua ez zen xamurra izango, janzten
zituzten arropak, bizi ziren etxeak, lane-
rako zituzten tresnak, neguaren hotza
eta argitasun falta etortzen zaizkit buru-
ra.

Darwin-en eboluzioaren teoria eta se-
lekzio naturala bizi-bizian imajinatzen
dut, errukirik gabe ahula edo gaixoa ito
arte estutuz, alperra eta bakartia mise-
riara kondentatuz, artoa eta itxurazalea
ridikuluuan jarriz.

Garai gogorak benetan, baina hala

eta guztiz egunero jan beharrak, natu-
raren gordintasunetik babestu beha-
rrak, eta odolekoak aurrera atera be-
harrak, ematen dio nonbait gizakiari in-
dar neurri-ezina. Eta aurrera atera
ziren, mendiari minerala kenduz, baso-
ari egurra eta lurrari janaria.

Haitzulotik ateratako zilarra hasie-
ran, eta burdina, beruna eta zinka on-
doren, izan dira ia gaur arte irekita
mantentzearen arrazoia. Adituen esa-
netan, 400 gizon 200 urtez lanean ari-
tuta ere, bukatuko ez litzatekeen me-
zulo ikaragarria dugu Arditurrikoa.

Gaur egun, kotxea hartu eta bertara
erraz asko joan daiteke edonor; igande
honetan bagoaz Adunako 70 lagunetik
gora meatzea ezagutzea gure kalefak-
ziodun kotxez, argazki kamara automa-
tiko eta *whatsapp*-dun mugikorra har-
tuta. Gauzak asko aldatu dira, dudarik
gabe, baina pentsatzen dut, muinean,
lehengoak garela, eta garai batean
gure arbasoak nozitu eta ikasitakoa ge-
neetan daramagula.

Ea egun polit bat pasatzen dugun,
eta iluntasunaren laguntzarekin, garai
bateko aztarnak ikusiz, aspaldi lokartu-
ta ditugun instintuak pizten zaizkigun.



SANZ
arraindegia

Tel.: 686 98 21 74
943 65 17 85

Nafarroa etorbidea,
7 behea
20400 Tolosa



ARALAR
KIROLAK

Laskorain, 7 • TOLOSA
Tel.: 943 654 916

KOMIKIA



ILARGI ETA LANOA SORGINENTZAKO GIROA



Zorionak Aratz!

Aratz Alkain (Amezketan).
Bihar 10 urte.
Zorionak etxekon partetik bereziki arreba Garazi eta osaba Josebak.



harpidedun izateak badu saria saridunak

1 Iriarte Etxea Jatetxea

Bi laguntzako bazkaria

- Angel Oruesagasti (Amezketan)

Pedro Mari Otaño plaza
Zizurkil
Tel.: 943-69 25 37



Eskaera egiteko, bi hilabete.

2 Plaza Etxeberri Jatetxea

Bi laguntzako menu berezia

- Xanti Urizar (Tolosan)

Pedro Mari Otaño plaza
Zizurkil
Tel.: 616- 647 869



Eskaera egiteko, bi hilabete.



Iker Ibarluzea
Eguraldi mutila

Ostiralean

Negu giroa izango dugu. Egunaren hasieran elurra 500-600 metrotan ikusiko dugu eta egunean zehar 700-800 metrora igoko da. Zaparradarik handienak eta ugarienak goizean izango ditugu, non tarteka ekaizta jo eta txingorra bota dezakeen. Arratsaldetik aurrera zaparrada horiek tartekatukoak izango dira eta ateri-guneak luzeagoak. Haizeak iparraldetik joko du, atzokoa baino ahulago eta tenperaturak behera egingo dute, altuenak 7-8°-ren bueltan geratuko dira.

Larunbatean


Giro euritsua izango dugu, tenperaturak antzeko balioetan ibiliko dira eta egun osoan zehar zaparradak izango ditugu eta elur maila 700-800 metrotan egongo da.

Igandean

Iparraldeko haizearekin ibiliko garenez, berriz ere euria egingo du, aurreko egunetan baino gutxiago baina giro bustia eta desatsegina izango da. Zertxobait epelduko duenez, elur maila 800-900 metrora igoko da.

Astehenean

Haizeak ipar-ekialdera egingo du, indartu egingo da eta zaparradak batez ere goizaldean espero ditugu. Arratsaldean atertzeko joera egongo da. Tenperaturak eta elur mailak behera egingo dute (600-700 m.).



Ostirala
29



Larunbata
30



Igandea
31



Astehena
32



Egin zaitez Atarikide!



**tolosaldeko
ataria**

943-65 56 95

atarikide@ataria.info

Tolosaldeko Atariaren papereko edizioa etxean jaso eta irratia nahiz atari digitala egiteko laguntza ekonomikoa eman nahi baduzu, egin zaitez **Atarikide**. Urtean 75 euroren truke, eskualdeko euskarazko proiektu bateratua garatzen lagunduko duzu. Ataria zabalik dago zure ekarpenentzat. Deitu 943655695 telefonora edo idatzi ataria@ataria.info helbide elektronikora. Eskerrik asko!



SHUYANA

EDERGINTZA

Zure azalari kolore ukitu bat eman eta kalitatezko kosmetika oparitzeko aukera eskaintzen dizu Shuyanak %20ko deskontuarekin



Abenduaren 2tik 14ra

Eskaintzak ezin dira pilatu

SHUYANA
EDERGINTZA

ESTETIKA:

Eskolapioetako Lorategiak 3, 1A.

Tel.: 943 675 489

KOSMETIKA:

Korreoa kalea 1.

Tel.: 943 671 468

ARTDECO

INSTITUT
ESTHEDERM
PARIS

PHYRIS
PREMIUM SPA COSMETICS

PIROCHE
LABORATOIRES

